

# 1. GAIA: Heziketa gertaera eta ezagutza xede gisa.

- Heziketaren definizioa:

## 1.1 IDENTITATE KONTZEPTUALA (LUENGO 2004)

- Jaiotzen garenetik eragiten digun fenomeno.
- Hezkuntza esperientziek gure izateko era moldatu egiten dute modu zehatzean. hezkuntzaren esanahian sakontzeko derrigorrezkoa da gure jarrera intuitiboetatik alde egitea.
- Heziketa ez da aktibitate bat soilik, askoren multzoa baizik. (komplexutasuna)
- Etimologikoki 2 esanahi hartu EDUCERE (barrutik kanpo aldera atera arazi). EDUCARE (hazi,formatu,instruitzeko kanpotik ematen diren eraginak).
- Indibidualizazioa.

## 1.2 HEZIKETA KONTZEPTUAREN HAINBAT ESANAHI (SANVISENS 1984)

- Gertaera/errealitatea: Hezkuntza guri gertatzen zaigun errealidade bat da, gertaera historiko eta soziala:
  - transmisio komunikatzailea
  - erakundeak
  - sistemak
- Aktibitatea/prozesua: Heziketa gizakiok egiten dugun jarduteko modua. Ez da bapatean ematen den ekintza, baizik eta pausokatua ematen dena, graduatzenoana. Prozesu batean emate dena.
  - Hetero heziketa: Hezkuntza erlazio, hezten ari den pertsona eta beste baten artean ematen dena. Prozesua kanpo agenteak gidatzen dute.
  - Auto heziketa: Bakoitzak bere prozesua gidatzen du. Autonomia.
- Efektu/emaitza:
  - pertsonala
  - Soziala/ Kulturala
- Erlazioa:
  - Komunikatzailea → Formatzailea
  - Erregulatzailea → Optimizatzailea
- Teknologia:
  - Bitartekaritza: Kultur edukiak transmititu, inposatutako prozesua. Derrigorrezkoa.
  - Ikaskuntza/ Irakazkuntza: Kultur eduki horiek transmititzeko ditugun baliabide eta sistemak. Metodoak, teoriak...

Giza sistema eta prozesua da, soziala, kulturala eta komunikaziozkoa.

Heziketa prozesua da: arau, patroi edo balio baten arabera antolaturiko funtzioen edo ekintzen sekuentzia.


Hezkuntza sistema: Objektu edo helburu batekiko erreferentzian elkarloturik dauden elementuen multzoa. Artikulazio guztiak, legeetan banatzen dira. Estatuak erregulatzen du. (dimentsio, morala, poitikoa, soziala, pertsonala eta soziokulturala.)

### 1.3. HEZIKETA GIZA-AKTIBITATEA ETA ERLAZIOA: EZAUGARRIAK (Sanvisens, 1987)

- Gaitasun subjektiboa: plastizitate konfiguratzailea:
  - Hezigarritasuna (educabilidad)
  - Hezitzailetasuna (educatividad)j+ç
- Gidaritza izaera:
  - Kanpo gidaritza.
  - Autogidatzea.
- Perfekzionatze bidea:
  - Maila pertsonalean.
  - Gizarte aldaketa.
- Funtzioa hartzailea eta aktiboa:
  - Informazioa hartu –Memoria- aktibitatea.
- Patroi eta balioetarantz zuzendu
  - Esplizituak.
  - Implizituak.
- Intentsionaltasuna: Helburuak.
- Jarraipena, iraunkortasuna: Heziketa Iraunkorra.
- Progresio graduala: Optimizatze egokitzzailea, proiektiozkoa eta barnerantz zuzendua.

#### HEZIGARRITASUNA:


(Educabilidadea: Bakoitzari dagokion gaitasun subjektiboa. Espezie osoak konpartitzen du, baina bakoitzari dagokion gaitasuna da modu ezberdin edo aldakor batean.)



## HEZIGARRITASUNAREKIN ERLAZIONATUTA DAUDEN TERMINO BATZUK:

- **Ikaskuntza:** gaitasunean aldaketa iraunkorra suposatzen du.  
“Jokabidearen aldaketa erreala edo potentziala inplikatzeko duen prozesua, erlatiboki iraunkorra, sujetua-ingurunea elkarrekintzaren bitartez eman dena, eta sujetuaren ekintza edota behaketari esker posible izan dena” (Miguel Martinez, in Sanvisens, 1984:91)
- **Irakaskuntza:** besteei zerbait erakutsi. Ikaskuntzari begira egiten denean, ikasleen ikaskuntza prozesua bultzatu eta orientatu nahi da teknika egokiekin.
- **Instrukzioa:** ikaskuntza-irakaskuntza prozesua. Ezagutzak modu antolatuan jasotzea suposatzen du. Bereziki dimentsio intelektualaren eraikuntzari egiten dio erreferentzia.
- **Formazioa:** instrukzioaren emaitza erabat integratua izan dena. Oro har, gaitasun intelektualen lanketa baina haratago dihoa. Emaitza zehatzak, lor daitezkeen helburuak bilatzen dira. [Heziketa terminoak prozesu amaigabeari egiten dio erreferentzia, gizakiaren dimentsio guztiak bereganatzen dituelarik]
- **Kapazitazioa:** lanbide edo aktibitate bat egiteko beharrezkoak diren ezagutzak eta teknikak jasotzea. Instrukzioaren parte bat bezela ikusten da.
- **Adiestramendua – entrenamendua:** instrukzio prozesuaren dimentsio gisa, jarduera zehatzak burutzeko trebetasunak eskuratzea esan nahi du. Nahi den trebetasunaren praktika oinarritzkoa da.

## HEZIKETA PROZESU ETA SISTEMA SOZIO-KULTURAL GISA: DIMENTSIOAK



## 2.GAIA: Heziketa formala, ez-formala eta informala.

(Esparru ezberdinen eboluzio historikoa eta jarduera pedagogikorako eremu nagusiak)

Badaude hezkuntza intentzionalak, eta beste hezkuntza prozesu ez direnak intentzionalak. Biologikoki gutxi garatuta, gure genetan izan behar dugun jarrera ez da markatzen, heziketak markatzen du hori, gizarteak erakusten duena. Tribu guztiak, edo gizarte guztiak dute gizatasuna eta basakeriaren definizioa. Humanizazioaren kontzeptu hori aldakorra da, eta hezkuntzak horrerantz heldzeko bidea ematen digu.

### 2.1 HEZKUNTZA FORMEN PROGRESIOA:

- Heziketa naturala (funtzionala): Gizakiok gure ingurune natural eta sozio kulturalarekiko hartu-eman.
- Heziketa razionala: Helburuarekin egina heziketa naturalarekiko prozesuen gainean eraikia
- Erakunde bereietan, instituzionalki: Eskolak. Heziketa eskolarizatua.
- Egun, hezkuntza unibertsoaz hitz egiten da : heziketa formala, ez-formala eta informala.

### Hezkuntza Unibertsoaren banaketa (Coombs, 1985; Trilla, 1993:23)



## 2.2 DEFINIZIOAK:

**Heziketa formala:** Hezkuntza sistema erabat instituzionalizatua, kronologikoki graduatua eta hierarkikoki egituratua, lehen eskolako urteetatik Unibertsitateko azken urteetaraino hedatzen dena.

**Heziketa ez formala:** formazio edo instrukzio helburu esplizituekin diseinaturiko prozesu, bitarteko eta instituzio berezien multzoa. Hauek ez dute hezkuntza sistema reglatuko graduak eskuratzeko helburu zuzena. Jarduera antolatuak dira, sistematikoak, baina sistema ofizialetik kanpo daude, populazioko azpitalde partikularrei (helduei zein haurrei) ikaskuntza zehatzak errazteko eginak.

**Heziketa informala:** eguneroko bizitzan zehar eta ingurunearekiko erlazioaren bitartez pertsonak eskuratzen dituen ezagutzak, trebeziak, jarrerak etab biltzen ditu, bizitza osoan zeharreko prozesua delarik.

## 2.3 HEZIKETA FORMALA: Eskolaren oinarrizko ezaugarriak (Trilla, 1993).

- Leku Bereizi batean kokatua.
- Denbora muga zehatzen barruan egindako jarduera.
- Hezitzaile (irakasle) eta hezituaren (ikasle) rolen definizioa.
- Edukiak aurrez mugatuak eta sistematizatuak.
- Ikaskuntza modu deskontestualizatua.

## 2.4 HEZIKETA EZ-FORMALA:

- “sistema paraleloa”, “heziketa ez-eskolarra”, “para-sistema”, “Eskola paraleloa”....
- Formalitatea / informalitatearen artean mugitzen da / oinarri, egitura eta método propioak ezartzeko joera.
- Eskolarekiko dependentzia sorreran, baina gaur egun hezkuntza mota eta jarrera desberdinak. Hezkuntza sistema formalean irekiera bilatzea ekarri du.
- Sorrera:
  - “heziketa funtzionalean”
  - Heziketa Formalean : eskolak sortu dituen hutsunean betetzeko sorturikoak (alfabetatzea eta helduen heziketa, adb), eta gerora dimentsio berriak eta kalitate handiagoa hartzen joan dira.
  - Beste helburu batzuekin eta eskolatik erabat kanpo sortutako jarduerak, hainbat talderen edo ekintzen indar hezitzailetik sortuak, metodología eta helburu propioak dituztenak (animazio soziokulturala, etab.)
- Egungo hezkuntza jarduera ez formalak anitzak dira, kontutan hartuz zein populaziori zuzentzen zaizkien, ze funtzio dituzten, prozedurak etab. Ez dago erlazio organikorik heziketa ez-formaleko mota eta bitarteko desberdinen artean.

## 2.5 HEZIKETA INFORMALA

- **Kontzeptu hertsia:** hezkuntz forma esplizitu, espezifiko edo independenteen pean azaltzen ez den ekintzak sortua. Ekintza, egile edo prozesuaren forma, bere hezkuntz dimentsio zorrotzean, ez denean azaltzen modu espezifikoan, banadu edo bereizgarrian bere horretan hezkuntz forma gisa.
- “Heziketa difusoa”, “Heziketa kosmikoa”, “Heziketa erreflejoa”, “Heziketa espontaneo”, “Heziketa asistematikoa”.
- Heziketa mota honen adierazleak:
  - Egilearen hezkuntz rola ez dago ez sozialki ez instituzionalki onartua (errekonozitua).
  - Hezkuntz funtzioa burutzen da hezkuntz funtzioak ez dituen veste batzuekin batera eta modu banaezinean.
  - Hezkuntza fenomeno gertatzen deneko testuinguruak ez du inolako hezkuntz espezifikotasunik azaltzen.
  - Ez du derrigorrez ez-intentzionala izan behar.

## 2.6 FORMALA ETA EZ FORMALAREN ARTEKO ALDEAK:

- Metodoa: metodo eskolarra→ formala (eskola); metodo eskolarra ez duena (beste metodo batzuk)→ ez-formala (udalekuak)
  - Heziketa formala: era bat instituzionalizatua, kroologikoki graduatua eta hierarkikoki egituratua.
  - Heziketa ez formala: Formazio edo instrukzio helburu esplizituekin diseinatutako prozesu, bitarteko eta instituzio berezien multzoa
  - Heziketa informala: Egunerokobizitzan zehar eta ingurunearekiko erlazioaren bitartez pertsonak eskuratzen duena.
  -
- “Heziketa difusoa, kosmikoa, erreflejoa, espontaneo...”: ezin duzuna bereiztu hezkuntz konportamendu bat den edo ez.pedagogikoki hezkuntza bezala ezin da hartu.
  - Egilearen hezkuntz rola ez dago. Ez dago instituzioalki onartua (errekonozitua).
  - Hezkuntz funtzioa burutzen da hezkuntz funtzioak ez diren beste batzuekin batera, modu banaezina.
  - Hezkuntza fenomeno gertatzen deneko testuinguruak ez du inolako hezkuntz espezifikotasunik azaltzen.
  - Ez du derrigorrez ez-intentzionala izan behar.

### 3. Gaia: heziketaren ezagutza zientifikoa

#### 3.1 HEZIKETARI BURUZKO EZAGUTZA TEORIKOA:

- Ezagutza xedea: Heziketa. Honek ikuspegi bikoitza du:
  - Niregandik gertu dagoen hezkuntza errealitate gisa, nire osotasunean eta nire bizitzan zehar ematen dena.
  - Hezkuntzak duen alderdi dialektiko eta unibertsala. Kontzeptu hau jasotzeko derrigorrezkoa da nire bizipen pertsonaletik aldentzea.
- Pedagogia: hezkuntzaren azterketa xedetzat duen diziplina zientifikoa.
  - Etimologikoki jatorria: "Paidagogoa" = umearen gidatzea. Grezia klasikoan pedagogoa zen nagusien umeak heziketa jasotzera eramaten zituzten esklabuak.
  - Gerora, hezkuntzaren artea edota teknika gisa ikustetik, hezkuntzaren zientzia gisa ulertzera igaro gara. Bere bilakaera historikoan bereiztu behar dugu: garai aurre-zientifikoa / garai zientifikoa.

#### 3.2 PEDAGOGIA, GARAI AURRE-ZIENTIFIKOAN:

- Espekulazio zientifikoarekin oso lotua egon da.
- Ezagutza zientifikoaren hastapen garai batez hitz egiten da, enpirismotik eta arrazionalismotik eratorria.
- Autore esanguratsuenak:
  - J. Locke, "Pensamiento acerca de la educación" (1693)
  - J.A. Comenio, "Didáctica Magna" (1628)
  - J.J. Rousseau, "Emilio o de la educación" (1762)
  - J.H. Pestalozzi, "Cómo Gertrudis enseña a sus hijos" (1801)
  - E. Kant, "Pedagogía" (1803)

#### 3.3 PEDAGOGIA GARAI ZIENTIFIKOAN:

- J.F. Herbart-ekin, bere "Pedagogía General" (1806) lanarekin hasiera emango zaio Hezkuntzaren Zientziari. Berarekin hasten da Pedagogiaren sistematizazioa zientzia gisa.
  - Helburuetaz eta bitartekoetaz kezkatuta, oinarri izango ditu Etika eta Psikologia.
- XIX. mendean zehar: pentsamendu positibistaren nagusitasuna eta zientziarengan fedea gizartearen progresurako motor gisa.
  - Pedagogia zientzia gisa garatuko da, zientzia fisiko-naturalen eredu epistemologikoari jarraikiz. Helburua = esperientziatik jasotako datuak sintetizatu lege bihurtzeko eta, honela, aurreikuspenak egin gizakion jokabidean eraginez.
  - Pedagogia experimentalak sortuko da (Lay, Meumann, etab.) ikerketa psikologikoetatik abiatuz.

### 3.4 PEDAGOGIA ETA HEZKUNTZA ZIENTZIAK:

- XX. mendeetan zehar gatazka epistemologikoa egon da Gizarte Zientzien (Pedagogiaren) zientifikotasunaren inguruan.
    - Zientziaren oinarriko definizioari helduz gero, “ezagutza objektibo eta sistematikoki antolatua, ikerketa metodologia zorrotz baten bitartez eraiki dena”, Pedagogiak izaera zientifiko osoa izango luke.
  - Ezagutza pedagogikoa = “bere lege eta teoriaren bitartez, beharrezko jardura estrategiak zehaztu eta hautatzen ditu (metodoak eta teknikak), egoera hoberenetan hezkuntza helburuak lortzeko (eredu baten arabera ezarriak)” (Luengo, 2004:161).
  - Pedagogiak badauka izaera espekulatiboa: hemendik eratortzen dira hezkuntza helburuak.
  - Pedagogiak badauka izaera zientifikoa: ikerkuntza zientifikotik, ekintza praktikorako lege eta printzipio gomendagarriak proposatzen ditu.
  - Pedagogiak izaera arauemailea (normatiboa) du
- 
- XX. Mendearen 70eko hamarkadaz geroztik, Hezkuntza Zientziak terminoa erabiltzen hasi zen, batez ere eremu anglosajoiaren.
  - Hezkuntza Zientzien panorama berria Pedagogiak zein lekua duen esateko garaian jarrera desberdinak daude (Luengo, 2004: 164).
  - Hezkuntza Zientzien klasifikazioak ere ugariak dira, autore eta orientabideen arabera. Klasifikazio proposamen bat ikus Luengo, 2004: 166.
  - Oro har, Pedagogia honela kokatuko litzateke:
    - Hezkuntzaren zientzia bakarra da: hezkuntzaz arduratzen da bere alderdi guztietan; orobiltzailea da, beste gainontzeko zientzietatik datorren ezagutza integratuz.
    - Izaera arauemailea du: arau orokorrak ezartzen ditu.
    - Dimentsio zientifikoa du, hipotesiak kontrastatuz behaketa eta esperimenez bitartez.
    - Dimentsio arrazional edo filosofikoa du, hezkuntzaren esanahia eta helburuak justifikatzen dituena.

### PARADIGMA ZIENTIFIKOAK:

#### Paradigma zientifikoak:

- Paradigma zientifikoak edo zientzia paradigmatikak Thomas Samuel Kuhn (1922-1996) zientziaren filosofoak zientziaren filosofiaren garatu zuen teoriaren baitan garatutako kontzeptua da. Bere esanetan, paradigmatik garai bateko zientzialariek haien jakintza-arloan ikerketak garatzeko planteatu eta onartu egiten dituzten ikuspuntuak, galderak, ereduak, metodoak eta soluzioak. Kuhn-en arabera, zientziaren garapena ez da lineala, aldiro gertatzen diren iraultza zientifikoaren bitartez gertatzen denez. Iraultza horien oinarrian paradigma zientifikoaren aldaketa legoke.
- Gizarte zientzietan eta, ondorioz, heziketaren kontzeptzio zientifikoan ezagutza zientifikoa ulertzeko paradigma edota eredu nagusi desberdinak elkarbitzen dira gaur egun.



### Paradigma teknologikoak:

- XX. Mendeko 60-70 hamarkadara arte paradigma nagusia izan da. Modernitatearen ideiarekin batera garatu izan dena, Progresoa, Garapena eta Eraginkortasuna printzipioen baitan eraikia.
- Hezkuntzaren kontzeptzio zientifiko honek oinarrian Filosofia Analitikoa du (Positibismoa/ Frege/ Russel), eta Arrazionaltasun Instrumentalaren printzipioak jarritzen ditu:
  - Deskubritu / Esplikatu / Aurrean Teoria Praktikan eskuhartu.
  - Heziketa = Teknologia.
- **Ikerketa:**
  - Gizarte zientziak zientzia naturalaren erreplika gisa ikusten dira.
  - Objektibotasuna.
  - Deskribatzailea – esplikatzailea.
  - Arauak lortzea.
- **Teoria:**
  - Deskribatu, esplikatu, arautu.
  - Prozesuetaz arduratu.
  - Errealitate sozialaren eraldaketa.
  - Aplikazio lineala.
- Hezkuntza fenomenoak:
  - Objektiboa.
  - Neurgarria.
  - Aldez aurretik diseinaturiko ekinbide arrazionala.
  - Antolaketa erregulatua.
- Hezkuntza teknologiak eskatzen du (batez ere hezitzailearen partetik):
  - Arrazionaltasuna.
  - Sistematizatzea.
  - Plangintza.
  - Helburuak argi izatea.
  - Kontrola.
  - Eraginkortasuna.
  - Optimizazioa edo auresate arazo konponketan.

### Paradigma kritikoa:

- Beste erantzun mota bat: Pedagogia Kritikoa (Heziketaren Teoria Kritikoa):Paradigma Kritiko-HermeneutikoaOinarri filosofikoa: Hermeneutika, Fenomenologia (Husserl), Teoria Kritikoa (Frankfurt-eko eskola, Adorno, Habermas).
  - Natur zientzien ereduari jarraitzen dion metodo zientifikoak ez du balio gizarte eta hezkuntza errealitatea aztertzeko.
  - Hezkuntza ekintza= beren esanahiak konpartitzen dituzten bi edo pertsona gehiagoren interpretazio unitatea.
  - Hezkuntza praktika = eraikuntza bat, errealitate soziokulturalak baldintzatua.
  - Hezkuntza ezagutza = baliozkoa.

- Ikerketa:
  - Partehartzailea, soziokritikoa, testuinguru ideologikoetan integratua.
  - Praktikatik ekintzara zuzendua.
- Teoria:
  - Heziketaren teoriak praktikan eta praktikatik hausnartzen du, ez praktikaz.
  - Praktika eraldatzera zuzendua, ekintza argitu eta dinamizatzen du.
  - Maila indibidual eta sozialean kontzientziatzailea eta emantzipatzailea da.
- Hezkuntzaren fenomenoak:
  - Baldintza historiko eta kulturaletatik interpretatua.
  - Partehartzailea, kritikoa eta konstruktiboa.

#### Paradigma hermeneutikoa:

- Ikerketa:
  - Intentzionala, arauen menpean.
  - Interpretatiboa.
  - Kontestuala.
  - Ezagutza ez aginduemaileak bilatzen ditu.
- Teoria:
  - Interpretaziozkoa, ulermenezkoa, kontestuala.
  - Arauak ematen ditu (ez legeak)
  - Elkarreragin sozialeko prozesu gisa, horizontala eta elkarriketara irekia.
  - Praktikan eta praktikatik, ez praktikaz.
  - Komunikazio ekintza. Suposatzen du: elkarrekintza eta esanahien kontsentsua.
- Hezkuntzaren fenomenoak:
  - Subjektiboa.
  - Testuinguruaren garrantzia.
  - Bizitzakoa, pertsonala eta kulturala.
  - Aldagarritasuna.
  - Elkarreraginezkoa.

## 4. Gaia: Egungo Hezkuntza Teoriak.

### 4.1 HEZIKETA TRADIZIONALAREN EZAUGARRIAK

- Gizakiari buruzko ikuspegi ez-denborazkoa: perfekzio ideia.
- Haurren izaera = ustela, heziketaren bitartez zuzendu beharrekoa.
- Eskola kanpoko munduaz aparte / kanpoak duen alderdi negatiboetatik babestu haurrak.
- Heziketa intelektuala : kultur tresnen menperatzea (kultura orokorra) / Eredu handien imitazioa.
- Berbalismoan oinarrituriko didaktika / hezik. Intelektualista / memoristikoa / pasiboa.
- Maisua = eredu handietara heltzeko bidea.
- Erlazio pertsonalak: Autoritatea / Disziplina / Zigorra / Distantzia / Konpetentzia.
- Gela-taldea: Masifikazioa / Estatikotasuna.

### 4.2 ESKOLA BERRIAREN EZAUGARRIAK:

- Haurra zehatza / naturalki ona eta errugabea. Funtzio, helburu, lege eta behar bereziak dituen bizitzako garaia.
- Abiapuntua: interes eta behar gertuenak eta bizizenak.
  - Eskola= haurarentzat bizitza.
  - Hezik.: intelektuala, fisikoa, artistikoa, eskulana.
  - Didaktika aktiboa: ekinbide sortzaile eta eraikitzailea / ekintza fisikoa, intelektuala, soziala eta morala.
  - Benetako ulerpena eta asimilazioa.
- Maisua-ikasleak:
  - Norabanakoaren askatasuna (konfidantza, errespetua).
  - Autogobernua.
  - Lankidetzta / elkartasuna / umearen izaeraren ulerkuntza.
  - Maisua: laguntzailea / haurarentzat eredu / hitz gutxiago eta ekintza gehiago.
- Eskola= komunitatea / Talde-lana-autogobernua.
- Edukiak:
  - Eguneroko esprirentziak: interes eta gai instruitzaileak.
  - Eskolatik kanpoko eduki berriak.
  - Garrantzia= inguruan duen eta interesatzen zaiona zuzenean eta berehala asimilatzea.

### AUTOREAK:

- J. Dewey (1859-1952)
- M. Montessori (1870-1952)
- O. Decroly (1871-1932)
- G. Kerschenteiner (1854-1932)
- E. Claparède (1873-1940)
- A. Ferrière (1879-1960)
- R. Cousinet (1881-1973)

#### 4.3 KORRONTE PEDAGOGIKOAK:

##### HEZKUNTZA TEORIEN BILAKAERA (XVIII - XX)

- Pedagogia progresista eta Eskola Berria:
  - J. Dewey (USA, 1859-1952)
  - O. Decroly (Belgika, 1871- 1932)
  - M. Montessori (Italia, 1879-1952)
- Pedagogia sozialista: Makarenko Pedagogia leninista-marxista(Ucrania, 1888-1939) eta Suchodolski (Polonia, 1907-1992):
  - Marxismoaren ekarpena hezkuntzan: Marx (1818-1883) eta Engels-en (1820-1895) ideien eragina. Marxismoa garaiko pentsamendu esanguratsuen oinarria izan da.
  - Eskolari kritika egingo zaio gizarte kapitalistan desberdintasun sozialak mantendu eta sustatzen dituen tresnatzat hartua den heinean. Heziketa aztertuko dute gizarte eta politikaren testuinguru zabalagoaren baitan.
  - Kritikak ez dira kuestio metodologikoei zuzenduak, eskolak jokatzeko duen paperari zuzenduak baizik. Honek, bizimoduaren eta erlazio sozialaren testuinguruan jokatzeko duen paperari zuzenduak, alegia (hegemonia ideologikoa).
  - Heziketak (pedagogiak) funtsezko rola dauka ikuspegi burgesa zokoratuko duen gizarte komunista berriaren eraikuntzan (1917ko Iraultza Boltxebikea, Sobietar Batasuna). Kolektibitatea zuzendu eta gidatu. Hezkuntza Sistema Berria: Lanaren Eskola Bakarra, formazio integrala eta balioanitzia (polibalentea).
  - Originaltasun pedagogikoa: kolektiboan jartzen den indarra, banakakoaren antitesi gisa.
  - Makarenko: Gorki Koloniako esperientzia (1920-1928) – Lan Koloniak (haur eta gazte umezurtzak, delinkuenteak, kategorrian bizi zirenak). Lana ez da teknika pedagogiko bat, produkzio jardura bat baizik (antolakuntza eta diziplina), zibilizazioaren funtsa (bere banaketak erlazio sozialak baldintzatzen ditu) eta heziketa sozialistaren oinarria.
- Herri pedagogia: L. Milani – Barbianako eskola (Italia, 1923-1967) eta C. Freinet (Frantzia, 1896-1966):
  - Irakaskuntzaren demokratizazio mugimendua, Europako bi Mundu Gerraren artean eman zena. Bigarren Hezkuntza gizarteko sektore guztietara zabaldu nahi izan zen. Adierazpen erabiliena: “eskola bakarra”.
  - Bigarren Mundu Gerraren ondoren jarri zuten praktikan, estatuaren esku-hartzea eta sustapena oinarritzko irakaskuntza (XIX) esparrutik haratago joan zen Bigarren Hezkuntza eta Goi Hezkuntzaren ardura hartuz. Hezkuntza herritar ororen eskubide gisa defendatuko da eta Estatuaren ardura gisa kontsideratuko.
  - C. Freineten berrikuntza teoriko-praktikoa eskola publiko herritarrean. Umean eta bere beharretan oinarrituriko pedagogia aktiboa eta lanaren bitarteko heziketa. Teknika pedagogikoak: testu librea, eskola-inprenta edo eskola-korrespondentzia. Eragin handia estatu espainiarrean eta Euskal Herrian.

- C. Freinet: “Aberatsen pedagogiaren aurka, pedagogia herritarra”. Eskola Berriarengandik aldatu zen, harek ez zuelako jarrera kritikorik azaldu sistema kapitalistaren ondorioen aurrean; ingurune sozialarekiko dugun menpekotasuna ahaztu egiten zuen; pedagogo berriak intelektualtzat hartzen zituen (teorietan geratzen ziren ---- azaleko aldaketak proposatu; garrantzi handiegia ematen zieten ariketei eta jolasei (simulazioa, ez errealitatea).
  - Milani: klase popularrari eskaintzen zaion eskola oso mugatua da (kultur inposizioa). Biek nekazal ingurunearekiko konpromiso handia garatu zuten. Eskolak klasismoarekin moztu behar du.
  - Ikasleak hitzaren jabe izan behar zuten: hizkuntzak bide ematen dio ezagutzari, jarrera kritikoari eta errealitatearekiko konpromisoari.
- Pedagogia libertarioak eta anti-autoritarioak: F. Ferrer i Guardia (Alella, 1859–Barcelona, 1909)/A. S. Neill (Eskozia, 1883-1973)/M. Lobrot (Fratzia, 1924)/C. Rogers (USA, 1902-1987):
    - Hezkuntzan autoritarismoaren aurkako jarrerak ideologia anarkistatik hartzen ditu bere oinarriak, heziketa integral eta libertarioan zentratuz, pertsona libre eta autonomoak lortzeko. Eta, baita ere, gisa bereko gizartea lortzeko.
    - Abiapuntua zera da: inork ez du bestearengana agintzeko eta menperatzeko eskubiderik eta, beraz, inork ez du goitik ezarrita datorren diziplinarik obeditu behar. Jokatzeko modurik egokiena zera da: denen artean lortutako akordio libreetatik datorrena. Autogobernua.
    - Ferrer i Guardia: heziketa arrazionala, zientifikoa, laikoa eta hezkidea.
    - Neill:psikoanalisiaren eraginak. Umea askatasunez garatzea ahalbidetuko duen heziketa, bere autodeterminazioa ahalik eta gehien errespetatuz.
    - Rogers: Ez-direktibitatea, ikaslearen potentzialtasunen adierazpen librearekiko errespetua. Hezitzailea ikaskuntza prozesua errazten duena, ikaslea pertsona bihurtuz.
    - Pedagogia instituzionala (Lobrot): hezkuntz autogestioa, eskola komunitatearen autogobernua.
  - Deseskolatzea:I. Illich (Austria, 1926-2002)/E. Reimer (USA,1910-1998)
    - 60-70 hamarkada: eskola erakundeak aukeren berdintasunaren alde egin dezakeenarekiko optimismoa apaldu egiten da (hezkuntza sistemak areagotzen dira kuantitatiboki, baina onurak ez dira denontzat berdinak).
    - Errenten banaketa ez da funtsean aldatu, lanpostuen falta somatzen hasten da, ikasketa urteak balioa galduz doaz lan merkatuan...
    - Optimismo pedagogikotik pesimismora eta desilusiora pasatzen gara (hezkuntza krisiaren ikuspegia).
    - Korrante kritikoa oso heterogeneoa: dagoenaren erreforma aldarrikatuko duten planteamenduetatik eskolaren deusezteara aldarrikatuko dutenetara.

- Gizarte kapitalistek eta sozialistek planteatzen dituzten arazoetarako konponbide gisa ez du balio eskolak. Gauza ez da hezkuntza deusezte, eskola deusezte baizik (erakunde manipulatzailea, pertsonak formatzeko helburuan zilegitasunik ez duena).
- Pedagogia kritikoa: P. Freire (Brasil, 1921-1997)/M. Apple (USA, 1942)/H. Giroux (USA, 1943)
  - XX. mendeko azken hamarkadak: heziketa norbanakoaren eta kolektiboaren emantzipazio prozesu gisa ikusten duen pentsamendu pedagogikoa. Mundu justuago eta gizatiarragoa lortzera zuzenduriko praktika; gizarte-talde behartsuenekiko elkartasuna; eta aurreko hezkuntza planteamenduei kritika.
  - PK gaur egun eraikitzen eta sendotzen dijoan pentsamendua eta mugimendua da. Pentsamendu kritikoa ez da pedagogiara zuzentzen bakarrik, hezkuntza ekintza ematen deneko testuinguru sozial eta politiko osora baizik.
  - Hezkuntza eta gizartearen arteko erlazioaren analisiak heziketaren izaera politikoa jartzen du agerian, zalantzan jarriz heziketaren ustezko neutraltasuna.
  - Freire: hezkuntza praktika Hego Ameriketako populazio marjinaletan. Teoria eta praktikaren arteko lotura testuinguru historiko zehatzean kokatuta dagoen heziketa kontzientziatzaileantz eramaten gaituena. Alfabetatzeak esan nahi du norberaren errealitatea irakurtzen eta idazten ikastea.
  - Apple: Curriculuma, ideologia eta boterea.
  - Pentsalari hauen interes guñeak:
    - Jakintza-mota berriak sortu, diziplinen arteko bereizketarekin hautsi eta beste zientzia-mota sozialago eta kritikago baten bitartekari izan daitezten.
    - Ezkatuko curriculumaren analisia, hau da, edukien “ustezko neutraltasunean” arakatu.
    - Hezkuntza praktikak analizatzeko pertsonak behar duten autonomia arrazionala garatzeko metodoak sortu (irakasle-ikertzailea, irakasle ‘eraldatzailea’, ikerketa-ekintza).
    - Etika eta politikaren zentzuak erabili hezkuntza ekintza guztietan.
    - Eskolen benetako demokratizazioa heziketa benetan eraldatzailea izan dadin.


## 5. Gaia: Euskal Herriko Hezkuntza erakundeak.

### 5.1 ESPAINIAKO HEZKUNTZA SISTEMA NAZIONALA XIX: MOYANO LEGEA (1857)

- Liberalismo Moderatuaren ezaugarriak eta balioak:
  - Uniformitatea
  - Zentralizazioa
  - Doakotasun erlatiboa
  - Sekularizazioa / Hezkuntza sistema bikoitza.
  - Irakaskuntza askatasunaren mugaketa katedra askatasuna.

- Ikastetxe pribatuei baldintzak
- Estatuaren esku-hartzea: irakasleriaren antolaketan / ikastetxeen gobernuan.

- Administrazio egitura:



- Irakasleriaren profesionalizatzeko prozesua:

- Irakaskuntza maila bakoitzerako irakasleriaren ordenamendu zehatza (kontrol politikoa eta selekzio sistema)
- Irakasleriaren prestakuntzari izaera estrukturala
- “Eskola Normala” → Unibertsitate barrutia
  - Oinarrizko eskolak: hiriburuetan
  - Goi mailako eskolak: Uniber. Barrutiko zentroan
- Oposaketa sistema → Estatuaren funtzionario korpusa

- Curriculum Nazionala:


- Hiritarrak egin irakaskuntzaren bidez ere (nazioaren partaide kontziente curriculumak izaera nazionala)
- Gizartearen modernizatzeko prozesua (estatu zentralizatua, mugikortasun soziala, merkatu nazionala, hiritarren arteko komunikazioa, ezagutza modernoengatik inguruko formazioa, alfabetatzea)
- Lurraldetasuna / uniformizazioa / homogeneotasuna
  - Hizkuntza: gaztelania
  - Historia: Espainiarena
  - Geografia: Espainia
  - Kultura: espainiarra (Testu liburuak: erabateko kontrola ← kontrol ideologikoari begira dagoen praktika politikoa.)

## 5.2 INSTITUCIÓN LIBRE DE ENSEÑANZA (1876-1939)

- Katedra askatasunaren defentsa → Unibertsitate hainbat irakasle bota:
  - Fr. Giner de los Ríos / Manuel Bartolomé Cossío irakaskuntzaren berritze prozesua hasi:  
"Boletín de la I.L.E."  
→Ikastetxea + komunitate espiritualak: ikasleak / irakasleak / familiak / beste.
- Erakunde pribatua erreformatzailea:
  - Unibertsitate bokazioa eza
  - Lehenengoa + bigarrenkoa: ziklo bakarra
  - Irakaskuntza aktiboa: Eskola Berria
- Ideia orokorrak:
  - Zientzia + azterketa askatasuna
  - Elkarrenganako tolerantzia eta errespetua
  - Europazaletasuna
  - Bizitzaren sekularizazioa
- Sortutako erakunde eta elkarteak:
  - Museo pedagógico (1882).
  - Junta para la ampliación de Estudios e Investigaciones Científicas (1907)
  - Centro de Estudios Históricos (1910)
  - Residencia de Estudiantes (1910)
  - El Instituto-escuela (1918)
  - Patronato de Misiones pedagógicas (1931)

## 5.3 HEZKUNTZA EUSKAL HERRIAN XIX-XX:

- Euskal Herria Hegoaldean, XIX-XX:
  - Foruak eta irakaskuntzaren kontrola 1876 arte.
  - Kontzertu Ekonomikoak eta perspektika autonomistak (1878-1937).
  - Diktadura garaia (1940-1975).
  - Estatu Autonomikoa eta hezkuntzaren deszentralizazioa (1978- ).
- Hezkuntza sistema Hego Euskal Herrian:





- Foruen garaia:
  - Lehenengo karlistadetan baieztatu Foruak (Ley 25/10/1939 eta R.D. 8/7/1844)
    - Udalak: oinarritzko instrukziorako eskumenak maisuen izendapenean, beste aspektuen erregulazioan.
    - Diputazioek: “contrafuero” argudiatu, protestak: 1838ko legearen aurka, 1849ko inspektoreen aurkakoa,Moyano legea.
  - Estatuaren erantzuna: aipamen bereziak foruen kontrako disposizioak ez aplikatzeko. Eraldaketak lortu
    - Irakasleen izendatze eta ordainketaz
    - Herri batzordeen konposaketaz
    - Ikuskatzaileen kopuruaz
    - Irakasle eskolen ezarrez
- Foruen garaia: Karlisten boterealdia (1873-1876)
  - Irakaskuntzaren kontrola karlistak agintzen zuten udal eta probintziako korporazioen esku:
    - Erabaki organoak:
      - Bizkaian: Junta Superior de Instrucción Pública y Sanidad del Señorío de Vizcaya (1875)
      - Gipuzkoan: Junta de Instrucción Primaria (1874)
      - Administrazio liberalen aurka
      - Eskolan planteamendu berriak
  - Irakaskuntzaren kontrola:
    - Irakasleengan eskuhartu: euskara ezagutu behar eta udalek izendatu behar.
    - Irakaskuntza edukietan: erlijio kristauaren irakaskuntza indartu.
    - Instrukzio juntetan apezteriarren presentzia nabarmena.
  - Errealitate ezarria: gazteleraren inposaketa eta Estatuaren administrazio organoen ezarria.
- Foruen garaia:
  - Euskaraz ikasteko aukerak:
    - Dotrina euskaraz irakatsi zitekeen.
    - Karlisten boterealdian: “Iracurtzaren asierac”
  - Gazteleraren irakaskuntza erraztu euskara erabiliz:
    - Agustín Pascual Iturriaga (1842): “Diálogos vasco-castellanos para las escuelas de primeras letras de Guipúzcoa”
    - Luis de Astigarraga: “Manual vascongado y castellano (1840tik aurrera eskoletan doan banatua)
    - Juan M<sup>a</sup> de Eguren: →“Método práctico para enseñar el castellano en las escuelas vascongadas” (eskoletarako onartua, 1867)

→ “Diccionario vasco-castellano”

→ “Manual de conversación para uso de los que visitan el País Vasco.”

- Kontzertu Ekonomikoak eta Kultur Berpizkundea: 1876-1936:
  - Foruen aldeko mugimenduak: euskal kultura eta euskararen suspertzea eta ezagutza zientifikoen bultzada: Arana, Urkijo, Campion, etab.
  - Euskal Nazionalismoa (1895):
    - Irakasle “maketoen” eskuetan zegoen irakaskuntzaren kritika zorrotza.
    - Eskolaratze sare paraleloak / eredu alternatiboak.
  - Eusko Ikaskuntza (1918, 1920, 1922 ... Batzarreak): hezkuntza sistemako mailen azterketa / irakaskuntza saila.
  - Primo de Riveraren diktadura arte, udaletan eta Diputazioetan ordezkari nazionalistek irakaskuntza maila guztietarako autonomia eskatu zuten etengabe.
  - Euskal Eskola baterantz zuzendutako esperientzia mugatuak:
    - Lehenengo Ikastolak
    - Auzo Eskolak
    - Euskal Eskolak

#### **Lehenengo ikastolak:**

- Errepublikak aurretik eta Errepublika garaian.
- Funtzionamendua: bakarkakoa / isolatua/ koordinazio pedagogikorik gabe / antolaketa maila eskasa.
  - Bizkaian: Bilbon, R.M<sup>a</sup> Azkuek “Ikastetxea” sortu zuen 1886an (1908-1921?): Euskara ikasgai soilak
- Gipuzkoan: Donostian, M. Muñoak sortu zuen 1914an(-1936), “Koruko Andra Mariaren Ikastetxea”
  - Etorkizuneko Ikastolen oinarria: →Irakaskuntza euskaraz →Pribatua, Herrialdeak eta Udalek lagunduta.
- Beste Ikastola batzuk sortu ziren: Tolosa (1922) / Lizarra (1933) / Errenteria (1922) / Segura (1931) / Iruña (1931), etc.

#### **Auzo eskolak (Bizkaia):**

- Bizkaiko Diputazioak burutua, “Moción Galiano”, (1919-1938).
- Hasierako planteamendua: Benetako Euskal Eskolak izatea. Helburua= irakaskuntza euskaraz eta euskararena euskaldunak ziren nekazal lurraldeetan.
- Euskalzaletasuna galdu 1922. urtetik aurrera.
- II. Errepublikan, eskola berri asko sortu: akonfesionalitatearen aurrean euren autonomia aldarrikatu
- Benetako esperientzia autonomoa (125 eskola): ikasle ugari (Markina, Durango, Arratia, Enkarterriak eskualdeetan eragin nabarmena), eraikuntzen kalitatea, irakasleriaren hautaketa, etab.
- Liburuak euskaraz: lehiaketa publikoz.
- Edukiak euskal kulturaren oinarrituak.
- Euren balioa: herri laguntza / nekazal lurraldeetan analfabetismoa jaitsieran eragin/ irakaskuntza elebidunaren eraikuntza

### **Auzo eskolak (Gipuzkoa):**

- Diputazioaren esku (1927-1938).
- Ez zen Bizkaiaren adinekoa (20ren bat bost urtetan: Billabona, Tolosa, Oihartzun, Hernani, Zumaia, etab.
- Udalek: lokalak eman / irakasleak aukeratu. Baldintza= euskara menperatzea.
- Bultzatu zuten: nekazal irakaskuntza eta euskaraz idatzitako liburuen erabilera

### **Euskal eskolak:**

- II. Errepublika garaian sortuak. Arrazoa: EAB-k (Emakume Abertzale Batzak) 1932an egindako deialdia.
- 2 ardatz: euskararen defentsa / laikotasunaren aurkako jarrera → eskola ofizialaren aurka → euskal eskolak sortu.
- Partikular eta erakunde nazionalisten eskuetan:
  - Ez estatala (erlijioa kendu nahi zuelako)
  - Elizaren eskolengandik at (euskalzaletasuna frogatzeke)
- E.I.B. (Euzko Ikastolen Batza): Batasuna
  - Koordinatze pedagogikoan (orientazio pedagogikoa).
  - Antolaketa mailan (Ikas plangintza).
- Herri batzordeak (autonomia babestu).
- Ezaugarriak:
  - Izaera nazionala
  - Eskola Berriaren berrikuntza pedagogikoak.
  - Euskal "curriculum" berezi baten formulazioa.
- Diktadura garaia: Donostiako "etxe-eskolak"
  - Elvira Zipitria EAB-ko sareak (1906-1936) infraestruktura gisa.
  - 1946-1960, 8 etxe-eskola martxan:
    - E. Zipitria (1946) / M<sup>a</sup> Dolores Goia (1951) / Jone Forkada (1952) / Karmele Esnal (1953) / M.K. Lasarte eta M.K. Mitxelena (1957) / Itziar Arzellus (1950) / Faustina Karril (1953).
  - Eskola Berriarekin bat datozen praktika pedagogikoak (Montessori / Decroly).
  - Etxea / emakumea / nazionalismo tradizionala / alfab. murriztua / alfab. literarioa / klandestinitatea / euskararen erabilera murriztua (Xabiartxo).
- Diktadura garaia: ikastolen sorrera eta lehenengo hedapena (1960-1975):
  - Eragileen belaunaldi berria / gerra-urrekoaren desberdina den gizartea.
  - Aurre antolaketarik gabe, herri bakoitzean modu autonomoan antolatu.
  - Eduki sozioafektibo nabarmena.
  - Hezkuntza ofizialek kanpo / 3 urtetik aurrerako eskolatzea / eskolaratze maila guztiak.
  - Izaera popularra / parte-hartze herritarra.
  - Parte-hartze zabala / komunikazio handia gurasoak-irakasleak / kooperaziorako bideak.
  - Mugimenduaren neurria nahiko eskuragarria.

- Irakasleriaren formazio berezia, iraunkorra / tituludunen erreziklajea eta andereño enpirikoen formazioa (Andereñoen erresidentzia, bilera pedagogikoak).
- Berrikuntza pedagogikorako korrante desberdinekin harremana (Rosa Sensat, C. Freinet, P. Freire).
- Hez. Ez Formalaren garrantzia: eskolaz kanpoko ekintzak, ibilaldiak, etab.
- Hasierako legeztatzea "Ikastola parrokialak" edo zentro pribatu edo erlijiosoen babesaren bidez.
- 1970, "Gipuzkoako Ikastolen Federazioa".
  - Aldaketak /krisiak/boterea
  - 1975. Urtetik aurrea erakundetze prozesu ez homogeneoa.
  - Ikastolak garatuko dira kooperatiba gisa edo S.A. gisa egituratuz.
-